



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko martxoaren 8a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege proposamenak:

—Foru Legea, ondoko foru legeak aldatzeko: Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea eta Nafarroako ikus-entzunezkoen jardura arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, eriak bere bizitzaz erabakitzeko duen autonomia arautzen duena. Osoko Bilkurak ez zuen aintzat hartu (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da sexu osasunaren inguruko prestakuntza jarduerak eskain ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat prestatzeari buruz onetsitako erabakia bete dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Aldizkari Ofiziala osorik argitara dezan euskaraz. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako eta Frantziako gobernuek premiatzen dira euskal presoak sakabanatze-ko politika bazter dezaten lehenbailehen. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei ekin diezaien, aerodromo eta aireportu zibilen arloko eskumenak eskualdatzeko. Foru Araubide Batzordeak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arantza bifidoa duten pertsonentzako neurri batzuk har ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (8. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko eskabideetan beharrezkoa ez izateko bankuko abala aurkeztea. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak onetsia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua premiatzen da Larraungo ibaietako ur emarien egoerari buruzko ingurumen arloko auditoria bat egin dezan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak bazter utzia (9. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, gizarte- eta osasun-zentroetan farmazia zerbitzua ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak hitzarmenak ezartzerakoan zentroak edo zerbitzuak aukeratzeko darabiltzan lehentasunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Urbasako kanpina birmoldatzeko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Goi karguen bateraezintasunei buruzko gaur egungo legediari buruzko txostena. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeko ponentziak onetsia (17. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, ondoko foru legeak aldatzeko: Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea eta Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2005eko otsailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, ondoko foru legeak aldatzeko Foru Legea onetsi zuen: Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea eta Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikkeluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2005eko martxoaren 3an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Legea, ondoko foru legeak aldatzeko: Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea eta Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legea

Zaila izaten da gehiengo parlamentario oso zabalak lortzea, batzuetan eskatzen diren portzentajeetara ezin izaten baita iritsi, Nafarroako

Parlamentuak sortu eta haren menpekoak diren organoetako kideak edo titularrak hautatu edo izendatzeko, eta zaila da, halaber, hautatuek edo izendatuek karguan aritu beharreko aldi osoan gehiengo horiei eustea; egoera horren ondorioz, beharrezkoa da gehiengo horiek berrikustea, eta halaber haiekin loturik egon litezkeen beste bete-behar batzuk ere, unean uneko egoera edo politikoak galaraz ez dezan dena delako hautaketa edo izendapena.

Alde batetik, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa, zeina legeak --Arartekoa arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea-- Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria dela baitio 1. artikuluan. Bigarrenik, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua, uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeak sortu zuena Nafarroako Parlamentuak hautatu beharreko organo independente gisa, zioen azalpenean adierazten denez. Azkenik, Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea, martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legeak sortua.

Foru Komunitateko arartekoaren kasuan, hura arautzen duen foru legearen 2. artikulua Parlamentuko kideen hiru bostenek osaturiko gehiengo eskatzen du izendapenerako; gehiengo hori Comptos Ganberako lehendakariaren izendapenerako eskatzen dena baino askoz handiagoa da.

Gauza bera esan daiteke Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaz, hura arautzen duen foru legearen 23.1 artikulua xedatzen baitu organoak dituen zazpi kideetatik bost Nafarroako Parlamentuak hautatuko dituela, parlamentarien bi herenek osaturiko gehiengoaz, hau da, Foru

Komunitateko arartekoaren izendapenerako behar dena baino gehiago kualifikatuagoaz.

Gaur egun, Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailean gehienez ere hamaika kide egonen dira, eta osaketa hori eserlekuen banaketaren proportzionaltasunaren isla izan beharko da, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran parlamentu-talde bakoitzak dituenena; talde bakoitzak kide bat izan beharko du, gutxienez, kontseilu horretan, eta kontuan harturik zein den gaur egun, 2003ko hauteskunderaz geroztik, Parlatuentuaren osaketa, ia ezinezkoa da agindu hori betetzea.

Horregatik guztiagatik, aipatutako hiru foru lege horiek aldatzeko foru lege bat onestea proposatzen da, testu honekin:

1. artikulua. Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legearen aldaketa.

Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legeko 4. artikuluko 1. eta 4. idatz-zatien edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

"1. Nafarroako Parlamentuko batzorde arruntek zenbat kide dituzten, beste horrenbeste izanen ditu Kontseilu Aholku-emaileak, eta haiek osatuta dauden proportzio berean osatuko da. Nafarroako Gobernuako lehendakariak izendatuko ditu kide horiek, Parlamentuko taldeek proposatuta.

"Hutsunerik sortzen bada, kargua utzi duen pertsona proposatu zuen parlamentu-talde berak izangai bat proposatuko du, eta Nafarroako Gobernuako lehendakariak huraxe izendatuko du, betiere kargua hutsik dagoela deklaratu eta hurrengo hila-betean, gehienez ere."

2. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua-ren edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

"2. artikulua.

1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlatentuak hautatuko du; sei urterako, hain zuzen. Arartekoak Parlatentura jotzen badu, Parlatentuko lehendakariaren bidez eginen du.

2. Foru Araubide Batzordea arduratuko da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarekin harremanak izateaz, eta, halaber, batzorde horren ardura izanen da Osoko Bilkurari behar diren guztiak jakinaraztea.

3. Parlatentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa hautatzeko gehiengo osoa eskatuko da lehen bozketan. Hautagaietako batek ere ez badu gehiengo hori lortzen, bigarren bozketa eginen da, baina parte hartuko dute soilik lehen bozketan boto gehien eskuratu dituzten bi hautagaiak. Boto kopuru handiena eskuratzen duen hautagaia hautatuko da. Hautagai bakarra dagoen kasuan, bigarren bozketa gehiengo soilaren bidez ebartziko da.

4. Aurreko idatz-zatian aipatutako gehiengo lortuz gero, hautagaia Nafarroako Foru Komunitateko ararteko izendatuko da."

3. artikulua. Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 23. artikuluko 1. idatz-zatiaren a) letrak eduki hau izanen du aurrerantzean:

"a) Bost kide Nafarroako Parlatentuak hautatuko ditu. Horretarako, parlatentu-taldeek hautagaiak aurkez ditzakete, bost gehienez, ikus-entzunezkoen, kulturaren, unibertsitatearen edo elkartearen arloan merezimendu aitortuak dituzten eta Nafarroako aniztasun ideologikoaren isla diren pertsonen artean; hala ere, foru parlatentari bakoitzak gehienez horietako hiruri eman ahalko die botoa; botorik gehien lortutakoak izanen dira hautatuak.

Berritze partzialetan foru parlatentari bakoitzak gehienez ere izangai baten aldeko botoa eman ahal izanen du, eta boto gehien lortu dituzten pertsonak hautatuko dira."

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauen indargabetzea.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, eriak bere bizitzaz erabakitzeko duen autonomia arautzen duena.

OSOKO BILKURAK EZ ZUEN AINTZAT HARTU

Legebiltzarrak, 2005eko otsailaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Eriak bere bizitzaz erabakitzeko duen autonomia arautzen duen Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen. Lege proposamena Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu zuen.

Proposamen hori 2004ko abenduaren 7ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko martxoaren 3an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da sexu osasunaren inguruko prestakuntza jarduerak eskain ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2005eko otsailaren 24an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Hezkuntza Departamentua premiatzen da sexu osasunaren inguruko prestakuntza jarduerak eskain ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 3an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da sexu osasunaren inguruko prestakuntza jarduerak eskain ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua premiatzen du Irakasleak prestatzeko 2005-2006ko planean nahiz etorkizuneko planetan sexu-osasunari buruzko prestakuntza jarduerak eskain ditzan, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemako irakasle guztiei zuzenduak.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat prestatzeari buruz onetsitako erabakia bete dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat prestatzeari buruz onetsitako erabakia bete dezan."

Legebiltzarrak, 2005eko otsailaren 24 egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko abenduaren 7ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko martxoaren 3an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Aldizkari Ofiziala osorik argitara dezan euskaraz.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Aldizkari Ofiziala osorik argitara dezan euskaraz".

Legebiltzarrak, 2005eko otsailaren 24 egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2005eko abenduaren 20ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko martxoaren 3an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Espainiako eta Frantziako gobernuak premiatzen dira euskal presoak sakabanatzeko politika bazter dezaten lehenbailehen.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Espainiako eta Frantziako gobernuak premiatzen dira euskal presoak sakabanatzeko politika bazter dezaten lehenbailehen".

Legebiltzarrak, 2005eko otsailaren 24 egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2005eko abenduaren 20ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko martxoaren 3an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei ekin diezaien, aerodromo eta aireportu zibilen arloko eskumenak eskualdatzeko.

FORU ARAUBIDE BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Foru Araubide Batzordeak, 2005eko otsailaren 23an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei ekin diezaien, aerodromo eta aireportu zibilen arloko eskumenak eskualdatzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuarekiko negoziazioei ekin diezaien, aerodromo eta aireportu zibilen arloko eskumenak eskualdatzeko

Gorte hauek Nafarroako Gobernua premiatzen dute Espainiako Gobernuarekiko negoziazioari ekin diezaioten, Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeko gure lurraldean dauden aerodromo eta aireportu zibilen arloko eskumena.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arantza bifidoa duten pertsonentzako neurri batzuk har ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2005dko otsailaren 25ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da arantza bifidoa duten pertsonentzako neurri batzuk har ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 28an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arantza bifidoa duten pertsonentzako neurri batzuk har ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Bideko Ama Birjina Ospitalearen menpean arantza bifidoaren unitatea sortzeko beharra azter dezan, diziplina arteko tratamendu bat, eragingarritasunez koordinatua, eman ahalko duena.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko eskabideetan beharrezkoa ez izateko bankuko abala aurkeztea.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2005dko otsailaren 28an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko eskabideetan beharrezkoa ez izateko bankuko abala aurkeztea".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko martxoaren 1ean.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko eskabideetan beharrezkoa ez izateko bankuko abala aurkeztea

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan errentako babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko eskabideetan beharrezkoa ez izateko bankuko abal konpromisoa aurkeztea eta hori soilik kreditatu behar izateko baldin eta errentako araubideko etxebizitza bat adjudikatzen bazaio.

Mozioa. Horren bidez, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua premiatzen da Larraungo ibaietako ur emarien egoerari buruzko ingurumen arloko auditoria bat egin dezan.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua premiatzen da Larraungo ibaietako ur emarien egoerari buruzko ingurumen arloko auditoria bat egin dezan. Mozio hori 2004ko azaroaren 30eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2005eko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea.

Iruñean, 2005eko martxoaren 1ean.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, gizarte- eta osasun-zentroetan farmazia zerbitzua ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak jaunak gizarte- eta osasun-zentroetan farmazia zerbitzua ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko ekainaren 15eko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du zentro soziosanitarioetan farmazia zerbitzua ezartzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako zein zentro soziosanitariotan ezarri dira farmazia zerbitzuak?

LA Vaguada eta Amma Oblatas zentroek dute farmazia zerbitzua, baita horretarako baimena ere.

Aita Menni zentroak farmazia zerbitzua jartzeko eskaera eginga du. Aipatu zerbitzua egoitza zaharberritzeko lanak bukatzean irekiko da.

Iruñeko Erruki etxeak badu farmazia zerbitzua jartzeko proiektua, baina oraindik ez da ofizialki aurkeztu.

2.- Gure erkidegoan dauden eta arau honen mende dauden zentro soziosanitarioetatik, zeinetan ez da farmazia zerbitzurik ezarri? Hala bada, nola hornitzen dira zentro horiek behar diren medikamentuekin? Farmazia bulegoen bitartez?

Gainerako zentro soziosanitarioek ez daukate farmazia zerbitzurik eta farmazia bulegoen bitartez hornitzen dira. Zentro bakoitzak aukeratzen ditu farmazia bulegoak.

3.- Farmazia bulego bat baino gehiago dauden herrietan, Iruñean gertatzen den bezala, ba al dago itunik, hitzarmenik eta abar, farmazia ezberdinen erabileran zentroak medikamentuez hornitzeko berdintasuna bermatuko duena?

Ez dago inolako hitzarmenik zentro soziosanitarioei farmazia laguntza emanen dien farmazia bulegoa ezartzen duenik; zentro bakoitzak aukeratu du.

4.- 35.c) artikuluko kasuetan, non aipatzen baitira laguntza behar dutenentzako ehun baino plaza gutxiago dauzkaten eta laguntza jarduera eta medikamentuen kontsumo handia daukaten zentro soziosanitarioak, zentro mota horretarako arauen bat egin al dute? Ezezkoan, ba al dago horri buruzko aurreikuspenik?

Betiere, ba al dago letra horren barruan farmazia zerbitzurik jarri duen zentrorik? Zein dira?

Oraingoz ez dago zentro soziosanitarioetako farmazia zerbitzuei buruzko araurik. Osasun Departamentuak gai horri buruzko jarduketa plan bat prestatzeko asmoa du.

Gaur egun ez dago farmazia zerbitzua eskatu duen ehun ohe baino gutxiagoko zentro soziosanitariorik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 21ean.

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak hitzarmenak ezartzerakoan zentroak edo zerbitzuak aukeratzeko darabiltzan lehentasunei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak hitzarmenak ezartzerakoan zentroak edo zerbitzuak aukeratzeko darabiltzan lehentasunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko ekainaren 8ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 25ean.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak galdera egin du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak hitzarmenak ezartzerakoan zentroak edo zerbitzuak aukeratzeko darabiltzan lehentasunei buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoie jarraikiz:

1.- Zein lehentasun ditu Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak hitzarmenak ezartzerakoan zentroak edo zerbitzuak aukeratzeko?

Gainerako galderak ikusirik, zaharren egoitzekin egiten diren hitzarmenei buruzko galdera dela ulertzen dut. Galdera horri erantzuteko bi eremu geografiko bereizi behar dira: alde batetik, Iruñerria, bertan postuen eskaera handiagoa baita, eta bestetik, Nafarroako gainerako lurraldeak.

Iruñerriari dagokionez, 1997ko ekainean onetsitako Nafarroako plan gerontologikoak 65 urtetik gorako 100 pertsonako 2,5 postuko ratioa aurrerakosten zuen 2000. urterako.

Eskaera horren ondorioz eta plan gerontologikoaren ondorioek bultzatuta, merkataritza ekimeneko hainbat entitatek zaharren egoitzak eta eguneko zentroak eraikitze inbertsio-proposamenak egin zizkieten Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari. Abenduaren 1eko 329/1997 foru aginduaren bidez, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak batzorde aholku-emailea eratu

zuen, Iruñerrian zaharren egoitzak eraikitze eta ustiatzeko proposamenak ebaluatzeko eta proiektu egokienak diruz laguntzeko.

Dirulaguntza jaso duten entitate hautatuek postuen % 80 gutxienez Nafarroako Gizarte Ongizatearen esku utzi behar dituzte, horiek itundu ahal izateko. Hauek dira dagozkien postuak itundu dituzten proiektu hautatu eta diruz lagundutakoak: Landazabal zaharren egoitza, Amma Mutilva zentro gerontologikoa eta La Vaguada egoitza. Laster Oblatas egoitzako hainbat postu itunduko dira.

Nafarroako gainerako lurraldeetako zaharren egoitzetako postuak ituntzeko erabiltzen den irizpide nagusia da egoitza horretan sartzeko itxaron zerrenda badagoen ala ez.

2.- "Recursos Asistenciales" merkataritza sozietateak Nafarroako Kutxa Korporazio Industrialaren partaidetza du, Nafarroako Gobernuaren tutoretza pean postu batzuk ditu itunduak Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuarekin. Zenbat diru publiko jasotzen du urtean "Recursos Asistenciales" merkataritza sozietateak? Diru publikorik jasoz gero, kopuruak kontzeptuen arabera azaltzea eskatzen dugu.

Horri dagokionez, azaldu behar da Asistencial Mutilva, S.A. eta Asistencial Ibañeta, S.A. enprekin itundu zirela postuak. Recursos Asistenciales, S.L. enpresak lehenengoaren kapital osoa dauka. Bigarrean, aldiz, Recursos Asistenciales, S.L. enpresak % 51ko partaidetza dauka, eta gainerako % 49 eskualdeko hainbat toki enterena da: Erroibarreko Udala, Aezkoa Ibarreko Batzarre Nagusia, Artzibarreko Udala, Esteribarreko Udala, Auritzeko Udala, Luzaideko Udala, Orreagako Udala eta Oroz-Beteluko Udala.

2003ko ekitaldian, Recursos Asistenciales, S.L. enpresaren partaidetza duten Asistencial Mutilva, S.A. eta Asistencial Ibañeta, S.A. enpresek 1.577.031,31 euro jaso zituzten kontzeptu hauengatik:

*1.366.031,94 euro, Amma Mutilva zentro gerontologikoa ustiatzeko sinatutako hitzarmenagatik.

*210.999,37 euro, Amma Ibañeta egoitza ustiatzeko sinatutako hitzarmenagatik.

3.- Jardun horrek lehia askea urratzen al du?

Ez dut ulertzen zergatik egiten duzun galdera hori; izan ere, itunek zehatz-mehatz betetzen dituzte Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen xedapenak. Horretaz gain, esan behar da Recursos Asistenciales merkataritza sozietatea dela, eta ez sozietate publikoa.

4.- Nor dira merkataritza sozietate horren Administrazio Kontseiluko kideak?

Sozietatea eratu zenean, 1997an, hauek ziren Administrazio Kontseiluko kideak:

José Manuel Arlabán Esparza jauna.

Eduardo Astibia García jauna.

Jesús Morrás Labarta jauna.

Manuel López Merino jauna.

José Luis Osaba Roncal jauna.

Gaur egun, Recursos Asistenciales, S.L. enpresaren Administrazio Kontseiluak ondoko kideak ditu:

Juan Odériz San Martín jauna.

Pedro Berastain Diez jauna.

Julián Aldaz Gárriz jauna.

Roberto Ducay Azparren jauna.

Joaquín Esquíroz jauna.

– Uneren batean lehengo Gizarte Ongizateko zuzendari José Luis Alli jaunak parte hartu al du Administrazio Kontseilu horretan? Baiezkoan, noiz? Aldi berean izan al da inoiz Gizarte Ongizateko zuzendaria eta "Recursos Asistenciales" merkataritza sozietateko Administrazio Kontseiluko kidea?

Nafarroako Gobernuaren erabakiaren bidez, José Luis Alli Fernández jauna Recursos Asistenciales, S.L. enpresaren Administrazio Kontseiluko kide izendatua izan zen 1997ko apirilaren 15etik 1998ko abenduaren 31ra doan aldian, eta ez zuen ordainsaririk jaso eginkizun hori betetzeagatik. Aldi horretan Gizarte Ongizate zuzendari nagusia zen.

6.- Zenbateko zorra sortu dio Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari 17/2000 Legeak indarra hartu zuenetik, zaharrentzako egoitza batean sartzeko banakako laguntza edo postu itundu bat esleitzeagatik?

Horri dagokionez, esan behar da Hirugarren adinekoendako zerbitzuak finantzatzen laguntzeko egoitzetako erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpena arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legea indarrean sartu aurretik zorra

sortzen zela, eta halaxe aurreikusten du aipatu foru legearen bosgarren xedapen gehigarriak: "Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak bere zentroetan eta hirugarrenekin itundutako plazetan jarritako prezioak direla eta ordaintzeko dauden zorrak, preskribitu ez dutenak, diru bilketari buruzko arau publikoetan kasu guztietarako ezarriko prozeduren bidez, premiamendu bidea barne, eskatuko dira, betiere kobratzeko prozedurari hasiera eman ez bazaio foru lege honek indarra hartu baino lehen."

17/2000 Foru Legea indarrean sartu ondoren Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ordaintzeko zeuden zorrak eskatzen jarraitu zuen, baina handik aurrera horretarako legearen babesa zuen.

Gaur egun, hau da indarrean dagoen araudia:

- 168/1990 Foru Dekretua, ekainaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen arloan prestazioak eta norbakoentzako eta familientzako laguntzak arautzen dituena.

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzarraren 1997ko ekainaren 18ko erabakia da erakunde autonomoak zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuetarako tarifak eta haiek aplikatzeko arauak onesten dituena.

- 17/2000 Foru Legea, abenduaren 29koa, zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena, abenduaren 30eko 34/2003 Foru Legeak aldatzen duena.

17/2000 Foru Legeak segurtasun juridiko handiagoa ematen du zaharrentzako egoitza batean egoteagatik sortutako zorra eskatzerakoan. Halaber, informazio sistemen modernizazioa ahalbidetu du.

2004ko maiatzaren 31n, sortutako zorra 29.001.078,99 eurokoa da. Zor hori 2.352 espedienteren emaitza da, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren bere egoitzei eta egoitza itunduei dagozkien prestazio ekonomikoei dagozkienak, baita bereak ez diren egoitzetan egoteagatik ordaindutako prestazioei ere.

URTEA	ESPEDIENTE KOPURUA	ZORRA, GUZTIRA
Bizirik	156	1.193.014,28
1997	281	701.999,11
1998	288	1.484.924,44
1999	289	2.695.247,66
2000	307	3.634.750,14
2001	305	4.412.506,25
2002	299	5.545.518,76

2003	317	6.876.997,07
2004	110	2.456.121,57
Guztira	2.352	29.001.078,99

“Bizirik” terminoak ondokoa adierazten du: oraindik bizirik dauden eta sortutako zorra pixkana ordaintzeko borondatea duten pertsonen buruzko espedienteak. Baliteke pertsona horiek egoitza batean egotea, baita egoitza beren borondatez utzi izana ere.

7.- Zor horretatik zenbateko zatia berreskuratu da edo berreskuratzen saiatzen ari da dirubilketa prozeduren bitartez?

2004ko maiatzaren 31 arte sortutako 29.001.078,99 euroko zorretik, 4.137.452,78 euro (zor osoaren % 14,3) berreskuratu dira Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren bidezko borondatezko ordainketak direla eta. Ordainketa horiek 534 espedienteri dagokien (% 23) eta espediente horiei dagokien zorrak 6.769.012,66 euro egiten du. Hau da, berreskuratu gabeko zorrak 2.631.559,88 euro egiten du. Horrek esan nahi du 534 espedientei dagokion zor osoaren % 61 kobratu dela.

Data horretan bertan 1.182 espediente (guztien % 50) artxibatu egin dira, zordunek ez dutelako zorra ordaintzeko adina ondasunik. Espediente horiei dagokien zorrak 10.228.236,80 euro (% 35) egiten du.

Gainerako 636 espedientei (% 27) 12.003.829,53 euroko zorra dagokie eta une honetan kobratze edo baloratze prozesuan daude. Egoera honakoa da:

– Espedientea amaituta eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak kobratzeko zain, 108 espediente (% 5). Espediente horiei 1.952.946 euroko zorra dagokie. Horietatik 469.161,96 euro kobratu eginen dira. Gainerakoa, 1.483.784,19 euro, ezin izanen da kobratu ondasun faltagatik.

– Administrazio-errekurtsoa ebazteko zain, 8 espediente: 204.735,91 euro egiten dute.

– Espedientea amaituta eta betearazte-bidetik kobratzeko zain, 65 espediente (% 3): 1.308.830,86 euro egiten dute.

– Baloratzeko zain, 455 espediente (% 19): 8.807.316,61 euro egiten dute.

8.- Zein dokumentazio eta baldintzak exijitu dira laguntza ekonomiko bat edo postu itundu bat lortzeko?

Zerbitzua eskatzen dutenei eskatzen zaien dokumentazioa zentro gerontologikoetan sartzeko

eta/edo bertan egoteko prestazio ekonomikoa jasotzeko eskabide orrian eskatzen dena da. Eskabide orri hori Nafarroako oinarritzko gizarte zerbitzu guztietan dago eskuragai.

Eskabide orrian ondokoak jasotzen dira:

1. DATU PERTSONALAK: interesatuarenak, ezkontidearenak, legezko tutorearenak eta, kasu bada, legezko ezgaitasunarenak. Harremanetarako pertsonak, jakinarazpenetarako helbidea eta ezkontzaren araubide ekonomikoa.

2. DATU EKONOMIKOAK: puntu honetan emandako informazioaren xedea erabiltzailearen gaitasun ekonomikoa zehaztea da, abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legeari jarraikiz.

2.1 Interesatuaren datu ekonomikoa. Eskaera egiten den uneari buruzkoak izanen dira. Etekinen buruzko atalean eskura ditugun higigarrien kapitalaren gaineko azken balioak adieraziko dira, baita higiezinaren kapitalaren gainekoak ere. Aldiro kobratzen diren etekinak ematen dituzten produktuei dagokienez (funtsak, etab.), soilik ondasun balioa adieraziko da.

2.2 Ezkontidearen eta familia unitateko beste kide konputagarrien datu ekonomikoa (familia unitatea PFEZn xedatutakoaren arabera kontuan hartuko da). Aurreko atalean bezala.

2.3 Ondasunak eskualdatzea edo eskubideei uko egitea. Atal honetan hauxe aitortuko da:

Salmenta, dohaintza edo beste moduren baten bidez eskualdatutako ondasunak.

Ondokoen moduko eskubideei uko egitea: pensioak, ordainsariak, herentziak, legatuak...

Higigarrien kapitalak (bankuko kontuak, funtsak, etab.) haien sorreran parte hartu ez duen norbaiten izenean jartzea.

Kasu guztietan adierazi beharko da egintza gertatu zeneko urtea, baita onuradunaren izena ere. Agiri baten bidez formalizatu bazen, agiri horren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

3. DATU MEDIKOAK. TXOSTEN MEDIKOA.

Gaitasun psikofisikoak baloratzeko testa eta adimena neurtzeko galdetegi laburra (MEC). Horiek medikuak nahiz erizaintzako unibertsitate-diplomadunak bete ditzakete.

Nahaste psikiatrikorik balego, adimen osasun zerbitzuaren txostena aurkeztu beharko da.

Narradura kognitiboa eta/edo dementzia izanez gero, Neurologia zerbitzuaren txostenak aurkeztu beharko dira.

4. BERMEAK ERATZEA.

Hilean ordaindu beharrekoarekin ez badute erabiltzaileek hileko prezio guztia ordaintzen, zorra eginen dute Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin; zorraren zenbatekoa, hain zuzen ere, honakoa izanen da: erabiltzaileak ordaindutakoaren eta Institutuak bere zahar-etxeetarako edo itunduetarako ezarritako prezioaren arteko aldea.

Bestalde, erabiltzaileak egoitza pribatu bateko postua eskuratu badu eta berori ordaintzeko prestazio ekonomiko bat jasotzen badu, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari ordaindu beharko dio erabiltzaileak ordaindutakoaren eta Institutuak bere zahar-etxeetarako edo itunduetarako ezarritako prezioaren arteko aldea.

Bi kasu horietan zor hori kobratuko dela ziurtatzeko, erabiltzaileei eskatuko zaie berme pertsonal edo errealak eratzeari; horretarako, zuzenbideak ezarritako edozein bide erabili ahalko da.

Bermeak erabiltzaileak edo bere legezko tutoreak eratu dituzte, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren zahar-etxeetan edo egoitza itunduetan behin betiko sartu aurretik edota egoitza pribatu batean egoteko emandako prestazio ekonomikoa jaso aurretik.

5. ESKABIDEARI ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTUAK

1. Txosten medikoa.

2. Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuaren txostena.

3. Gaur egun Gizarte Segurantzatik edo kasuko entitateetik jasotzen duen pentsioaren ziurtagiria.

4. Banku, aurrezki kutxa edo bestelako finantza eta kreditu entitateen ziurtagiria bakarra, gaur egungoa eta azken 5 urteetako, baldin eta horietan ondare zerbitzuak kontuan hartzeko informazio fiskala eman dezakeen kapital higigarria badago.

Ziurtagiriak data, sinadura eta entitatearen ziguila izanen ditu, eta bertan adieraziko da ez dagoe-la eta denbora konputagarrian ez dela egon ziurtagirian agertzen ez den beste ondasunik. Ziurtagirian kapitalaren % 100 agertuko da, nahiz eta pertsona baten baino gehiagoren izenean egon. Kasu horretan titularren kopurua adieraziko da.

5. Ondasunik eskualdatu bada, eskualdatze eskrituraren fotokopia konpultsatua.

6. ESKATZEN DIREN BALDINTZAK-

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren egoitza batean postu bat lortzeko edota zuzeneko edo zeharkako prestazioak eskuratu ahal izateko, lehen aipatu araudian ezarritako baldintzak eskatzen dira:

- 168/90 Foru Dekretua, ekainaren 28koa (1990eko uztailaren 20ko NAO), Gizarte Zerbitzuen arloan prestazioak eta norbanakoentzako eta familientzako laguntzak arautzen dituena.

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzarraren 1997ko ekainaren 18ko erabakia da erakunde autonomoak zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuetarako tarifak eta haiek aplikatzeko arauak onesten dituena.

- 17/2000 Foru Legea, abenduaren 29koa, zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena, abenduaren 30eko 34/2003 Foru Legeak aldatzen duena.

9.- Batez beste, zenbat denbora behar du departamentuak laguntza ekonomiko bat nahiz plaza itundu bat lortzeko espedienteak, arestiko galderan aipatua, ebazteko?

Hirugarren Adinekoen Zentroetara sartzeko Bulegoak prestazio ekonomikoa eta/edo bere egoitza batean edo egoitza itundu batean postua emateko espedienteak ebazteko behar duen denbora hainbat faktoreen arabera da:

1) Gizarte langilearen txostenaren arabera, espedienteak arazo larriak islatzen baditu (menpekotasun psikofisiko handia, familia baliabide zuzenik ez izatea eta etxez etxeko laguntza antolatze ezintasuna), berehala ebazten da gutxieneko dokumentazioarekin (eskabidea eta osasun txostena aurkeztea) eta postua behin-behinekoz emanen da, gainerako dokumentazioa aurkeztu arte.

2) Gainerako kasuetan, espedienteak eskatzaileak behar den dokumentazio guztia aurkezten duenean ebazteko da. Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legearen 2. artikuluko xedatutakoaren arabera, eskatzaileen gaitasun ekonomikoa baloratu behar da, eta horretan atzerapenak sortzen ari dira.

3) Prestazio ekonomikoen kasuan, eskabideari buruzko ebazpena ematean, prestazioa ematea bidezkoa denean, beraz atzerako eraginaz ematen da eta eskabidearen dataren hurrengo hilabeteetik aurrera ordaintzen da.

10.- Zenbat pertsona, batez beste, daude itxaron zerrendan, azken 6 hiletan, Nafarroako egoi-

tzetan sartzeko? Egoitzen eta herrien arabera azaltzea eskatzen dugu.

Galdera horrela eginda ezinezkoa da erantzutea, eskaera ez baita eskatutako egoitzen arabera sailkatzen. Hala balitz, itxaron zerrenda beharrena baino askoz ere luzeagoa izanen litzateke, eskaera bakoitzean hiru egoitza desberdin ere eskaibaititezke.

Itxaron zerrenda egoitzaren egokitasunaren arabera zehazten da, eta egokitasuna osasun menpekotasunaren motarekin lotzen da. Horren arabera, kategoria hauek ditugu:

- Laguntza behar duten erabiltzaileak: 171
- Erabiltzaile psiko-geriatrikoak: 23

Itxaron zerrenda, guztira: 194

11.- Ba al du planik Gizarte Ongizatearen Departamentuak Nafarroan zahar-etxeak eraikitze-ko? Baiezkoan, nolakoak eta zein herritan?

Gaur egun, plan gerontologikoan aurreikusitako neurriak ezarri ondoren, 4, 93ko estaldura ratioa lortu da eta aurreikusitako xedea 5 da. Honekin batera doan laukietan islatzen denez, ratio hori gainditzeko duten autonomia erkidego bakarrak Gaztela eta Leon eta Gaztela-Mantxa dira.

Une honetan departamentua gizarte zerbitzuen mapa eguneratua prestatzeko trasteak egiten ari da, baliabideen eskaintza eta eskaera ezagutu ahal izateko. Halaber, mapa hori oinarri gisa hartuta plan estrategiko bat osatu ahal da, indar politiko eta sozialekin itundua, Nafarroak behar dituen gizarte baliabideak eta baliabide soziosanitarioak diseinatzeko eta planifikatzeko.

12.- Zein ikuskapen egin ditu departamentuak zahar-etxeetan azken 6 hiletan? Ikuskapeneko aktak nahi ditugu.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, Programa eta Instalazioen Kalitate eta Ikuskapen Atalaren bidez, 23 ikuskapen egin ditu zahar-etxeetan. Honekin batera doaz ikuskapen horien akten kopia.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2004ko ekainaren 22an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, Urbasako kanpina birmoldatzeko obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Urbasako kanpina birmoldatzeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko ekainaren 8ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 25ean.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera egin du Urbasako kanpina birmoldatzeko obrei buruz. Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Bioitza turismo kanpalekua Urbasako eta Andia-ako mendietako parke naturalean dago. Parke natural horrek natur baliabideak antolatze berezko plana dauka, uztailaren 1eko 267/1996 Foru Dekretuaren bidez onetsi zena, baita erabili eta kudeatzeko plan zuzentzaile bat ere, bertan garatu nahi diren jarduketak guztiak arautzen dituen.

Pasa den urteaz geroztik Urbasako Bioitza turismo kanpalekuan egiten ari diren obrek bi xede dituzte: alde batetik, hondakin-urak behar bezala arazteko beharrari erantzutea, eta bestetik, kanpalekua birmoldatzea. Azken xede hori lortzeko hainbat jarduketa egin behar dira, zerbitzuen eta instalazioen kalitatea hobetze aldera. Kontuan hartu behar da azpiegitura duela 12 urte eraiki zela eta lekune horretako klimatologia gogorak eraikinak hondatzen dituela. Bestalde, kanpalekua turismoaren kalitatearen ziurtagiria lortzeko eskatzen diren baldintzetara egokitu nahi da, baita bertan energia berriztagarriak aplikatu ere.

Bai turismoaren kalitatea, bai turismoaren sektorean energia berriztagarriak aplikatzea, turismoaren plan estrategikoan aurreikusitako jarduketak dira, eta Vianako Printzea

Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua ahalegin berezia egiten ari da horiek sektorean ezartze aldera. Hori dela eta, logikoa da horiek Bioitza turismo kanpalekuan aplikatu eta garatzea, hura baita Foru Komunitateko administrazioaren jabegoko kanpaleku bakarra.

Hauek dira aurreikusitako jarduketak: nagusiki ingurumenaren arloko hezkuntzari buruzko jarduerak garatzeko 11 bungalow berri eraikitzea; ur eta elektrizitate hornidura-ekipoak hobetzea; kanpalekuo barne zirkulazioa antolatuko duen bide bat egitea, kanpalekuko sarbidea hobetzeko eta bertan daudenak hobeto egon daitezen; zerbitzuen eraikin berria eraikitzea; kanpalekuko sarrera egokitzea; aparkaleku berri bat egokitzea; zerbitzu komunetan eta bungalowen eremuan eguzki energiako sistema instalatzea; eta, azkenik, bestelako lan txiki batzuk.

Obrak hasi aurretik zeuden bungalowak bere hartan utziko dira, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren nahitaezko baimena baitute. Horieta gain, beste 11 bungalow berri eraikiko dira eta horiek ere badute aipatu departamentuaren nahitaezko baimena. Bungalow horiek kanpalekuaren kudeaketaren adjudikazioa duen enpresak ustiatuko ditu, baita kanpadendak edo karabanak jartzeko eremuak ere.

Karabanei dagokienez, pasadizoko turistei zerbitzua emate aldera, 20 karabanarentzako tokia izango duen berariazko eremua egokituko da. Bertan 15 egunez, gehienez, egon ahalko da eta natur parke baten barruan dagoen instalazio batean beharrezkoak diren babes irizpideak aplikatzeaz gain, osagai iraunkorrak saihestuko dira; adibidez, hesiak eta atalondoak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 21ean.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Goi karguen bateraezintasunei buruzko gaur egungo legediari buruzko txostena.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEKO PONENTZIAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1. artikulua ezarritakoa betez, goi karguen bateraezintasunei buruzko gaur egungo legedia aztertzeke zeregina duen ponentziak eginiko txostena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Txostena 2004ko azaroaren 23an onetsi du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak.

Iruñean, 2005eko otsailaren 28an.

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Goi karguen bateraezintasunei buruzko gaur egungo legediari buruzko txostena

AURREKARIAK

1. 2004ko otsailaren 17an, Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak erabaki bat onetsi zuen, Ezker Batua Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak proposaturik, zeinean proposatzen baita bateraezintasunei buruzko gaur egungo legedia aztertzeke ponentzia bat eratzeari. Erabaki hori 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, 2004ko otsailaren 23koan, argitaratu zen. Hona haren edukia:

“1. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak erabaki du bere baitan goi karguen bateraezintasunei buruzko ponentzia bat eratzeari.

2. Ponentziaren zeregina izanen da txosten bat prestatzea bateraezintasunei buruzko egungo legeriaren aplikazioari eta horren erreformari eta garapenari buruz. Parlamentu-taldeek beren proposamenak aurkeztuko dituzte, lana bera eta proposamenei buruzko eztabaida zehazteko. Ponentziak askotariko pertsona, aditu eta gizarte-eragileei euren iritzia eta proposamenak eskatu ahalko dizkie.

3. Eginarazitako lana amaituko da gehiengoak onetsiriko ondorioak eta proposamenak biltzen dituen dokumentu bat egitean. Adierazten diren boto partikularrak ere jasoko ditu dokumentu horrek. Lan hori amaitzeko epea sei hilabetekoa izanen da, eta luzatu ahalko da.”

2. Ponentzia 2004ko apirilaren 21ean eratu zen, eta honako kide hauek zituen, Legebiltzarreko parlamentu-taldeek horretarako izendatuak izan ondoren: Pedro Eza Goyeneche jauna (UPN), M^a Gracia Iribarren Ribas andrea (SPN), Miguel José Izu Belloso jauna (IUN-NEB), Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (Aralar), Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN), Maiorga Ramirez Erro jauna (EA) eta José Luis Etxegarai Andueza jauna (Askotariko taldea). Legebiltzarreko legelari Adolfo Morales Gordo jauna jardun zen aholkulari lanetan.

3. Ponentziak askotariko dokumentuak aztertu ditu, Legebiltzarreko zerbitzu juridikoen bitartez eskuratuak; besteak beste, Estatuan, Nafarroan, beste autonomia erkidego batzuetan eta Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan bateraezintasunei buruz dagoen legedia.

4. Ponentziak Nafarroako Gobernuako Funtzio Publikoaren zuzendari nagusi Alberto Andérez González jaunaren agerraldia eskatu zuen, eta 2004ko apirilaren 29an bertaratu zen, bateraezintasunei buruzko legediaren aplikazioari eta goi karguen jardueren eta interesen erregistroaren funtzionamenduari buruz informatzeko.

5. Zenbait bilera egin ondoren, ponentziak honako txosten hau aho batez onetsi du, urriaren 5ean eginiko bileran. Txosten honi boto partikular bana erantsi zaizkio, Ezker Batua Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak eta foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak aurkezturikoak, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak ponentzia hau eratzeko otsailaren 17an eman zuen erabakiko 3. idatz-zatian ezarritakoaren babesean.

6. Azkenik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 55.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ponentziak erabaki zuen Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea ponentziak bere lana amaitu zuela, Mahaiak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeari dei egin ziezaion txosten honetan onetsiriko proposamenak eta txostenari erantsiriko boto partikularrak eztabaidatzeko.

ONDORIOAK

1. Nafarroako Foru Komunitatean bateraezintasunei buruz indarrean dagoen araudia (azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea, Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari goi karguen bateraezintasunei buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamenduak, honako foru dekretu hauen bidez onetsiak: urtarrilaren 7ko 1/1997 Foru Dekretua, zehapen-prozedurari buruzkoa, eta urtarrilaren 7ko 2/1997 Foru Dekretua, jardueren eta interesen erregistroaren funtzionamendua arautzen duena) Estatuko administrazioarentzat eta autonomia erkidego gehienentzat indarrean dagoenaren antzekoa da, eta, oro har, egokia da lortu nahi dituen helburuetarako. Hala eta guztiz ere, arau horien testuak, ponentziaren iritziz, zenbait gabezia edo disfuntzio agertzen ditu, zuzendu beharko lirakekeenak. Ondoko atal hauetan zehazturik daude:

2. Estatuko araudiak (maiatzaren 11ko 12/1995 Legea, Nazioko gobernuaren eta Estatuko administrazioari goi karguen bateraezintasunei buruzkoa) eta gai hau -zeinek bere lurralderako- arautzen duten autonomia erkidegoetako legeetako batzuek bi erregistro ezberdin ezartzen dituzte (edo, kasu batzuetan, erregistro beraren bi atal): Jardueren Erregistroa, izaera publikoa duena, eta Ondasunen eta Ondare Eskubideen Erregistroa, izaera erreserbatua duena eta soilik erakunde eta agintari batzuek kontsulta dezaketena (Gorteek, organo judizialek, ministerio fiskalak, arartekoak, Estatuko araudiaren kasuan), ulertzen baita ondareari buruzko datuek pertsonen intimitatean eragiten dutela.

Bateraezintasunekin zerikusia duten datuak eskuratzeari dagokionez dagoen alde hori parlamentu-esparruan ere gertatzen da. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak 24. artikuluan arautzen ditu bertako kideen jardueren aitopanak eta ondare-ondasunei buruzko aitopanak. Lehenak publikoak dira, eta bigarrenak, ordea, Legebiltzarreko Mahaiak soilik ikus ditzake. Antzeko xedapenak aurki daitezke Hauteskunde araubide orokorrari buruzko Lege Organikoan, diputatu eta senatariei dagokienez (lege organikoko 160. artikulua, Diputatuen Kongresuko eta Senatuko mahaiek 1995eko abenduaren 18an eginiko bilku-

ra bateratuan harturiko akordioz garatua, interesen erregistroari dagokionez, Gorte Nagusietako Aldizkari Ofiziala, A saila, 86. zenbakia, 1996ko urtarrilaren 8koa).

Azaldu dugun jardunari kontrajarririk, azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeak ezartzen duen araubidea nahasia eta kontraesankorra dela esatea beste erremediorik ez dago. 7. artikuluan ezartzen du "Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernuko eta Administrazioari goi karguen jardura eta interesen Erregistro" bakar bat, zeinean inskribatuko baitira hala jardueren gaineko aitopanak nola ondasun eta eskubideenak (11. eta 12. artikulua), eta izaera "publikoa" duena, 7. artikuluko 2. idatzizatiak xedatzen duenez. Baieztapen horrekin kontraesanean, 8. artikulua Erregistroko edukia isilpean gordetzera behartzen ditu bertako datuetara sarbidea duten langileak, eta 9. artikulua datu horiek eskuratzeko ahalmena mugatzen du Nafarroako Parlamentura, Comptos Ganberara, organo judizialetara eta ministerio fiskalera; kasu horietan, abian den ikerketa baterako beharrezkoa denean.

Bestalde, Nafarroako Parlamentuak ez du orain arte Erregistroan sartzerik izan, foru legeak gai hori Legebiltzarreko Erregelamenduaren eskuetan uzten baitu; baina erregelamendu horrek ez du jasotzen aipaturiko gaiari buruzko ezein xedapen.

Parlamentuko Mahaiak eskatuta 1999ko otsailaren 1ean emandako txostenean jadanik agerian utzi zuten egoera anomalo hori Legebiltzarreko zerbitzu juridikoek. 19/1996 Foru Legeak ezarritako araubidea "nahasia" zela zioten, eta alda zedila eskatzen zuten, "Erregistroaren izaera publikoari buruzko adierazpenaren eta bertan sartzeko aukera murriztuaren arteko kontraesana ebaztearen, legedi konparatuan gai honi buruz dagoen araudiaren ildotik". Halaber, txosten horretan proposatzen zen "Legebiltzarreko erregelamendua aldatzea edo, hori baino errazago, ebazpen osagarri bat ematea, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan oinarriturik, oinarritzko eskubideak ukitzen ez dituen Erregistroko zatia (jardura-aitopanak) foru parlamentariei irekita egotea guztiz bermatzeko". Proposamen hori ez da orain arte praktikara eraman.

3. Estatuko Administrazioan, 1981erako Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 74/1980 Legeaz geroztik, gobernu zentraleko kideek (beste goi kargu batzuk ere badaude egoera honetan) eskubidea dute, "kargua utzi eta hurrengo hilabetetik aurrera, eta karguan aritu diren denboraren iraupen bereko epe batean zehar, betiere hogeita lau hilabetez gehienez ere, honako hau jasotzeko: kalte-ordain moduko hileroko pentsio bat, aipaturiko epean indarrean zegoen aurrekon-

tuan kasuko karguari esleituriko ordainsari guztien ehuneko laurogeiaren hamabiren bat bezainbatekoa.”

Nafarroan, kalte-ordainei edo kargu-uzteei buruzko araubide hori abuztuaren 14ko 180/1984 Foru Dekretuan jasota dago, zeinak arautzen baitu lehendakari ohien eta kontseilari ohien estatutua. Hasiera batean ezartzen zuenez, aipaturikoek kargua uztean eskubidea izanen dute prestazio ekonomiko bat jasotzeko, karguan emandako urte bakoitzeko 45 egun dagokion ordainsaria bezainbatekoa. Betiere, kontuan har daitekeen gutxieneko epea urtebetekoa izanen da, eta gehienekoa, lau urtekoa. Oinarri gisa hartuko da kargua utzi den urteko ordainsari gordina. Xedapen hori urtarrilaren 12ko 7/2004 Foru Dekretuaren bitartez aldatu da, zeinak, besteak beste, horretarako arrazoi hau agertzen baitu: komeni dela parekatzea kargua utzi ondoko prestazio ekonomikoak estatuaren edo autonomia-erkidegoen antzeko araudietan ezarritakoekin. Gaur egun ezarrita dago ezen lehendakari ohiek eta kontseilari ohiek, kargua uzten dutenean, hilero prestazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea izanen dutela, karguan eman duten denboraren erdiaren pareko epe batez, eta, gehienez ere, 24 hilabetez.

Ez du koherentea ematen Gobernuako kideen ordainsariak foru lege bidez ezartzeak, Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko legearen bidez, hain zuzen, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeko 25. eta 38. artikuluek xedatzen duten bezala, eta bestalde, kargua utzi ondoren jasotzen dituzten ordainsariak Gobernuak askatasunez, foru dekretu bidez, ezarri eta aldatu ahal izatea (halaxe ondorioztatzen da foru lege bereko 31. eta 42. artikuluetatik), legezko mugarik gabe eta batzuk besteen arabera nahitaez izan beharrik gabe. Horrela jokatzeko ez dator bat Estatuaren jokabidearekin, zeren eta, jadanik azaldu dugun bezala, ordainsari horiek lege bitartez finkatuak baitaizka. Kargua utzi ondoko ordainsari horiek bateraezintasunei buruzko foru legean bertan zehaztea logikoagoa litzateke, eta herritarrei begira gardenagoa izateaz gain, mesfidantzarako aukera gutxiago eskainiko litzuzke.

4. 19/1996 Foru Legeko 2. artikulua bere aplikazio-esparruko goi kargu gisa hartzen ditu “izendapen libreko lanpostuetako titularrak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko erakunde autonomoetan, nahitaez funtzionarioek bete beharrekoak izan ezik;” bai eta “zuzendari nagusiak eta Foru Komunitateko sozietate publiko-
etako zuzendari kudeatzaileak” ere. Arau horrek ez du irizpiderik eskaintzen ezartzeko zein diren, bere

aplikazioari dagokionez, sozietate publiko gisa hartu beharrekoak. Horrela, bada, hutsunea betetzeko, ordezkio araubide gisa hartu behar dugu Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak ezartzen duena. Haren 5.1 artikulua xedatzen du ezen, foru lege horren ondorioetarako, Foru Komunitatearen sozietate publikoak direla merkataritza sozietate batzuk, zeinetan Foru Komunitateko administrazioaren, haren menpeko erakunde autonomoen edo aurreko artikuluan aipaturiko zuzenbide pribatuko ente publikoen zuzeneko edo zeharkako partaidetzak sozietate-kapitalaren erabateko gehiengoa egiten duen.

Araubide hori, administrazioak dituen zuzenbide publiko nahiz pribatuko ente instrumentalak, nortasun juridiko berekia daukatena, bateraezintasunei buruzko araudian sartzeari buruzkoa, mugatuegia dago gaur egun, eta ez dator bat Europar Batasuneko araudiak eta Espainiako ordenamendu juridikoak berak gaur egun agertzen dituzten joerekin. Bateraezintasunei buruzko araudiaren aplikazioan ahalik eta gardentasun handiena lortzearen, komeni da araudi horren esparrua handitzea, administrazio-zuzenbidetik eta bateraezintasunei buruzko legedian jasotako bermeetatik ihes egin ahal izateari eremurik ez uzteko.

Alde batetik, komenigarria litzateke enpresa publikoari buruzko kontzeptu zabalagoa jasotzea; adibidez, honako hauetan bildutakoa:

a) Uztailaren 25eko 80/723/CEE Zuzentarauko 2. artikuluan, zeina uztailaren 26ko 2000/52/CE Zuzentaruak aldatu baitzuen: “jabetza, finantza partaidetza edo enpresaren arauak direla-eta botere publikoek zuzenean edo zeharka nagusitasunezko eragina gauzatu ahal duteneko edozein enpresa”

b) Abenduaren 13ko 3604/1993 (CE) Erregelamenduko 3. artikuluan eta abenduaren 13ko 3603/1993 (CE) Erregelamenduko 8. artikuluan: “Enpresa publikotzat hartuko dira Estatuak edo bestelako lurralde-administrazioek jabetza, finantza partaidetza edo enpresaren arauak direla-eta zuzenean nahiz zeharka nagusitasunezko eragina gauzatu ahal dutenekoak.

Eragina nagusitasunezko zatitza joko da Estatuak edo beste lurralde-administrazioek, zuzenean nahiz zeharka, enpresarekiko honako baldintzeta-bat betetzen dutenean:

Enpresaren kapital izenpetuaren gehiengoa dutenean;

Enpresak luzaturiko partaidetzei dagozkien botorik gehienak dauzkaten; edo

Enpresaren administrazio, zuzendaritza edo zainketa organoko kideen erdiak baino gehiago izenda ditzaketenean”.

c) Ekainaren 14ko 1993/38/CEE Zuzentarauan (Espainiako ordenamendura Uraren, energiaren, garraioen eta telekomunikazioen sektoreetako kontratazio prozedurei buruzko abenduaren 30eko 48/1998 Legearen bitartez txertatua), zehazki 1. artikuluan, zeina ia hitzez hitz bat baitator aurreko testuarekin.

Bestalde, komenigarria litzateke, halaber, bate-raezintasun-araubidea hedatzea honako entitate hauetako kargu exekutiboengana (zuzendari nagusien edo kudeatzaileen mailakoengana, erabakitzeke ahalmenik gabeko organo kolegiatuetako kideak salbu): nortasun juridiko berekia daukaten zuzenbide publikoko entitateak, Foru Komunitateko administrazioarekin lotura daukatenak edo haren menpekoak direnak, baldin eta haien jardura nagusiki administrazio publiko horrek edo zuzenbide publikoko beste entitate batzuek finantzatua bada, edo haien kudeaketa azken horien kontrolpean badago, edo aipagai ditugun entitateen administrazio, zuzendaritza edo ikuskapen organoak osatzen dituzten kideen erdiak baino gehiago Foru Komunitateko administrazioak eta zuzenbide publikoko beste entitate batzuek izendatuak badira. Halaber, Foru Komunitateko administrazioaren ekarpenek gehiengoa daukateneko fundazioetako kargu baliokideengana ere hedatu beharko litzateke, baldin eta haien patronatuan boto-gehiengoa badaukate hark hautatuak diren kideek. Entitate horiek guztiak kontratuei buruzko foru legedian deskribatuak daude, dela haiei kontratu publikoen araubidea aplikatzeko (zuzenbide

publikoko entitateak), dela haiei publizitate eta garrantasun printzipioak aplikatzeko (fundazioak).

Azaldutakoan oinarrituz, honako proposamen hauek onetsi dira:

PROPOSAMENAK

LEHENA. 19/1996 Foru Legearen aldaketa partziala egitea, honako helburu hauekin:

a) Goi karguen jardueren eta interesen erregistroaren barnean bi atal bereiztea: bata, jarduerena, zeina publikoa izanen baita, eta bestea, eskubide eta ondasunena, zeinak izaera erreserbatua eta sarbide murriztua, soilik Nafarroako Parlamentuari, Comptos Ganberari, organo judizialei eta ministerio fiskalari irekia, izanen baitu.

b) Kargu-uzteen ondoren ordainketak jasotzeko eskubidea ematen duten karguak zein diren eta ordainketa horiek zenbatekoak izanen diren zehaztea.

c) Haren aplikazio-esparrua hedatzea Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera definituriko sektore publikoa osatzen duten entitate guztietatik legez zehazten diren kargu exekutiboengana.

BIGARRENA. Nafarroako Gobernua premia-tzea aurreko ataletan adierazitako ildoaren araberrako foru lege proiektu bat presta dezan eta Nafarroako Parlamentura igor dezan.

HIRUGARRENA. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzea, foru parlamentariak jardueren eta interesen erregistroa kontsultatzeko prozedura arautzeko.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	